

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Zortzi udalei diru-laguntzak baimendu dizkiete beraien udal plan orokorrak egiteko

Elo, Basaburua, Berriobeiti, Cascante, Ibargoiti, Imotz, Ituren eta Erroibar dira, eta laguntzen zenbatekoa 696.000 euro da

Asteazkena, 2017.eko maiatzak 3

Nafarroako Gobernuak zenbait lankidetzeta-hitzarmen onartu ditu Elo, Basaburua, Berriobeiti, Cascante, Ibargoiti, Imotz, Ituren eta Erroibarreko udalekin beraien udal plan orokorrak egiteko. Plan horiek diruz laguntzeko baimendutako urte anitzeko gastu-konpromiso guztien batura 696.000 euro da.

Eloko Udalaren kasuan, urte anitzeko konpromisoa 48.000 eurokoa da, aurrekontua honela banatuta: 9.600 euro 2017an, 28.800 euro 2019an eta 9.600 euro 2021ean.

Basaburuko Plan Orokorra egiteko, 72.000 euroko urte anitzeko gastu-konpromisoa baimendu da, honela banatuta: 14.400 euro 2017an, 43.200 euro 2019an eta 14.400 euro 2021ean.

Berriobeitiko Udalarekin sinatutako akordioak 200.000 euroko urte anitzeko gastua baimentzen du, eta horietatik, 40.000, 2007. urteari dagozkio, 120.000 2019. urteari eta 40.000 euro 2021. urteari.

Cascanteko Udalarekin 144.000 euroko urte anitzeko konpromisoa baimendu da. Horietatik, 28.800 euro 2017. urteari dagozkio, 86.400 2019 koari eta 28.800 2021. urteari.

Ibargoitiko Udal Plan Orokorra diruz laguntzeko, 48.000 euroko urte anitzeko gastu-konpromisoa baimendu da, honela banatuta: 9.600 euro 2017an, 28.800 euro 2019an eta 9.600 euro 2021ean.

Imotzen kasuan, 60.000 euroko urte anitzeko gastu-konpromisoa hartzea erabaki da bere Udal Plan Orokorra egitea, honela banatuta: 12.000 euro 2017an, 36.000 euro 2019an eta 12.000 euro 2021ean.

Iturengo Udalarekin 40.000 euroko urte anitzeko konpromisoa baimendu da. Horietatik, 8.000 euro 2017. urteari dagozkio, 24.000 2019 koari eta 8.000 2021. urteari.

Azkenik, Erroibarreko Udal Plan Orokorra egiteko 84.000 euroko gastu-konpromisoa baimendu da, honela banatuta: 16.800 euro 2017an, 50.400 euro 2019an eta 16.800 euro 2021ean.